

Menorca.

Menorca uhartea balear uharteen sortaldeko ertzean kokaturik dago. Haizeen uhartea ere deitua, espainiar lurraldean ekialderen kokaturiko eskualdea da. Izena latinetik dator eta "txikiagoa" esan nahi du. Erromatarrek jarri zioten izen hau bere aldamenean dagoen Mallorca baino txikiagoa izateagatik. 700 km² eta gutxi gorabehera 47 kilometrotako luzera dituen uharte eder honek 90.000 biztanle ditu.

Menorca Gizateriaren Ondare da, eta UNESCO-k Biosferako Erreserba izendatu zuen 1993an. Hau dela eta, uhartearen lurraldearen %40a baino gehiago babesturik dago. Bere interesagatik nabarmentzen da Menorca Iparraldeko Itsas Erreserba, 1990. urtean sortua eta itsasoan 5.119 hektarea batzen dituen.

Kostaldetik gertu jada, 30 metroko sakonerara iristen den itsas hondoa, bere kontserbatze egoera ona, bere itsas azpiko paisaiaren erakargarritasun handia eta nola ez, espezie dibertsitate handia dela eta bereizten da

Harrizko eremu zabaletan, arrakala eta harrizko bloke artean, organismo ugariak, bai ornodun eta bai ornogabeek, bizitzeko leku egoki bat aurkitzen dute. Hanka luzedun otarrain handiek beraien antenak ateratzen dituzte. Ez da inor ohartzen geldirik dagoen olagarroaren presentziaz. Berarentzat errazagoa da harrapakinen bat atzematea, kamuflatzeko daukan gaitasunari esker.

Alga, arrain eta organismo iragazleen komunitate ugariak Menorca uharteko itsas uren kalitatea oso ona dela erakusten digute. Bizitza estilo anitzetako organismoek paraje paregabe hau aberasten dute, non itsas bizitzak txokorik ezustekoenak kolonizatzen dituen.

Menorcako itsas hondo harkaiztsu ugariak hareazko alor eta Posidonia ozeanikoaren larreekin konbinatzen dira. Habitat hauetan espezie ezberdinak elkarrekin bizi dira; esaterako, Posidonien hostoen artean ageri diren nakrak, pinna nobilis, serranido koloretsuak, espirografo mukerrak eta alga espezie ugari, itsas biodibertsitate izugarria nabaria den ekosistema eder honetan.

Istorio zaharrak, hondartza birjinak eta itsasbazter harkaiztsu eta malkartsuek inguru berezi bat osatzen dute, paisaia idiliko eta esperientzia ahaztezinekin, klima mediterranearen tipikoak babesturik.

Menorcako itsas-ur gardenek uneoro harritzen dute bisitaria. Naturaren harribitxi ederrak itsas hondoetatik sortzen dira beraien armonia eta edertasunarekin gu gozarazteko. Hauen artean, dantzan dihardutela diruditen marmokak, esterako Pelagia noctiluca. Ilargiarraina eta bere lagun Rufo inperiala bezalako arrain izugarriak. Txibia, eta ikaraioa eta tramana bezalako hainbat arrain kartilagotsu Menorcako itsasoan bizitzak hartzen dituen forma ugarien adibide batzuk besterik ez dira.